

**BEGOÑAKO KARMELDARREN  
EUNURTEGARRENEAN  
LAU GIZON OSPETSU MUSIKAZALEEN GOMUTA**

Eungarren urtea ospatzea askok daben zoriona ez da. Gure artean, esaterako, edozeinek ez dau gure Jose Migel Barandiaran andiaren sasoia. Ain zar egin arte bizitzea inor gitxik badau be, ez da gauza guztietan bardin jazoten; etxeko jauna il arren, etxeak aurrera jarraitzen dau. Erakunde baten bizi diranak emengo aldia egin eta betiko badoaz, beste batzuk etorten dira atzetik eta erakundeak aurrera egiten dau, eta eun urte asko beteteraino eldu leiteke.

Begoñako Karmeldarren etxeari jazo jakona: ain zarra be ez dogu bera; lenengo eunurtea bete baino ez dau egin. Eta eungarren urte au, lenengo gizaldi edo mendeurren au, zarata barik, ia ixilean joan jako. Lengo urtean, 1987'n, irailaren zortzian eldu zan gure Karmelo eun urte betetara; eun urte lenago, 1987'ko irailaren egun orretan bedeinkatu eta zabalduak dira Karmeloko fraide-etxea eta eleizea. Bigarrenez etozan Karmeldarrak Bilbo aldera.

Amazazpigarren gizaldean, 1618garren urtean asita egozan Bilbon eta emen iraun eben zelan edo alan 1834tara arte. *Correo* kalean euren etxea bere eleizatxo eta ortutxoa, ain zuzen